

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

32/2024 Foru Agindua, otsailaren 19koa. Onartzea "Arabako Dokumentu Iturriak" ikerketa-bekena deialdi publikoa, 2024ko ekitaldirako

Bere eskumenen esparruan, eta Arabako Artxibo eta Dokumentuen Kudeaketa Zerbitzuan gordetako dokumentu-iturri buruzko ikerketa-proiektuen garapena bultzatzeko, bi ikerketa-bekak emateko deialdia egiten da.

Nahitazko txostenak ikusi dira.

Ondorioz, niri emandako ahalmenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Artxibo eta Dokumentuen Kudeaketa Zerbitzuan kontserbatutako dokumentu-iturri buruzko bi ikerketa-bekaren ("Arabako Dokumentu Iturriak") deialdi publikoa onartzea. Bekak horiek 2024ko ekitaldian garatuko dira (1. eranskina).

Bigarrena. Deialdiaren eskabide-eredua onartzea, foru agindu honen 2. eranskinean dagoena.

Hirugarrena. Deialdi hori Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuan aurreikusitakoaren arabera arautzen da (2019ko azaroaren 20ko ALHAO, 134. zk.). Dekretu horren bidez, Kultura eta Kirol Sailaren lehia-arabideko dirulaguntzak emateko oinarri orokor arautzaileak onartu ziren (martxoaren 2ko 7/2021 Foru Dekretuak aldatu zuen), bai eta ebazpen honen eranskinean xedatutakoaren arabera ere.

Laugarrena. Foru agindu honen bidez araututako laguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2023rako gastuen aurrekontuko 70101. G/332700/48000704 partidaren kargura ordainduko dira (2024. ekitaldirako luzatutako aurrekontua), eta 12.000,00 euroko gehieneko zenbatekoa ezartzen da guztira.

Bosgarrena. Bekak emateko edo ukatzeko ebazpenak gehienez ere hiru hilabeteko epean emango dira, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epe hori igaro eta eskabideari buruzko berariazko ebazpenik jaso ez bada, eskaera ezetsi egin dela ulertuko da, nahiz eta ondoren ebazpena eman daitekeen.

Seigarrena. Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie eskatzaileei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 42. eta 43. artikuluetan aurreikusitako moduan.

Zazpigarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratuko da eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Zortzigarrena. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakiokete Kultura eta Kirol Saileko foru diputatu titularrari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatzen baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluan. Bestela, zuzenean aurkaratu daiteke administrazioarekiko auzien jurisdikzioan,

bi hilabeteko epean, egintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, dagokion administrazioarekiko auzien epaitegian, hala xedatuta baitago Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko otsailaren 19a

Kultura eta Kirol Saileko diputatua
ANA M. DEL VAL SANCHO

Kultura zuzendaria
M^a INMACULADA SANCHEZ ARBE

1. ERANSKINA

“ARABAKO DOKUMENTU ITURRIAK”

IKERKETA BEKEN DEIALDIA

1. artikulua. Xedea eta helburua

Deialdi honen xedea da banakako ikerketa beka ematea, 2024ko ekitaldian garatzekoak, Arabako Artxiboko eta Dokumentuak Kudeatzeko Zerbitzuan gordetako dokumentu iturriei buruzko ikerketa proiektuak bultzatzeko, haien ezagutza hobetzeko eta haien erabilera zientifikoa eta akademikoa bultzatzeko tresna gisa.

Deialdi hau Kultura eta Kirol Sailaren norgehiagoka bidezko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuak eta haren ondoko aldaketek arautzen dute.

2. artikulua Laguntzak emateko prozedura

Bekak norgehiagoka bidez emango dira.

3. artikulua. Aurrekontu egozpena

Laguntza hauek emateko aurrekontu muga 12.000,00 eurokoa da, eta gastua Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023ko gastuen aurrekontuko 70101. G/332700/48000704 “Artxiboetako ikerketa beka” izeneko partidaren kontura egingo da.

4. artikulua. Beken iraupena, zenbatekoa eta beka kopurua

Deialdi honen bidez bi ikerketa beka emango dira, bakoitza 6.000,00 eurokoa. Dirulaguntza eman dela jakinarazten den egunetik hasi eta eranskin honetako 11.d artikuluan ezarritako entregatzeko azken egunera bitartean egin beharko dira haiei lotutako lanak.

5. artikulua. Onuradunak eta baldintzak

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute 2012-2013 ikasturtean edo geroago Giza Zientzietako eta/edo erlazionatutako diziplinetako lizentzia edo gradua lortzeko ikasketak 2024ko urtarrilaren 1eko dataz amaituta dituzten pertsona fisikoek. Atzerrian lortutako tituluek, edo titulartasun pribatua duten ikastegietakoek, baliozkotuak edo onartuak egon behar dute, bai eta beka ematen diren unean ondorio zibil osoak eduki ere.

Garatu beharreko ikerketa proiektuaren azalpen memoria bat aurkeztu beharko dute eskatzaileek, irakasle espezialista batek abalaturako proiektuaren erabilgarritasuna eta interesa babesteko.

Arabako Artxiboko eta Dokumentuak Kudeatzeko Zerbitzuan gordetako dokumentu iturriei buruzko azterlanak helburu dituzten ikerketa proiektuek jaso ahal izango dituzte beka; hain zuzen ere, 2024ko ekitaldirako beka deialdi hau xede duten ikerketa proiektuek, hala nola:

- a) Arabari buruzko azterlan demografikoak egiteko dokumentu iturriak.
- b) Arabako landa eta hiri aberastasuna aztertzeko dokumentu iturriak.
- c) Arabako dokumentu iturri desagertuak.
- d) Arabako gobernuaren eta administrazioaren bilakaera instituzionala.
- e) Arabako artea aztertzeko dokumentu iturriak.
- f) Arabako hirigintza aztertzeko dokumentu iturriak.
- g) Arabako eguneroko bizitza, jaiak eta herritarren erlijiosuna aztertzeko dokumentu iturriak.

Beka horietaz baliatzeak ez du esan nahi Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailarekin lan harremanik dagoenik, ez eta bekadunak langileen plantillan sartzeko konpromisorik hartu denik ere.

Bekadunen ikerketa lanak, osorik edo partez, Artxiboko eta Dokumentuak Kudeatzeko Zerbitzua-
ren bulegoetan egin behar badira, jendearentzat irekita dauden ordutegira egokitu beharko dira.

Ezingo dira izan beka hauen onuradun aurreko deialdiren batean beka jaso dituzten per-
tsonak.

Halaber, ezin daitezke laguntza hauen onuradun izan Arabako Lurralde Historikoaren Diru-
laguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 12.2. artikuluan jasotako egoeretakoren
batean daudenak.

6. artikulua. Eskaerak aurkeztea eta epea

1. Deialdian parte hartu nahi duten pertsonak bide hauetakoren bat erabili beharko dute
eskabidea aurkezteko:

a) Bitarteko elektronikoak: Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan horretarako es-
kuragarri dagoen inprimakia bete behar da. Horretarako, eskatzaileek Arabako Foru Aldundiak
onartutako ziurtagiri elektronikoren bat eduki beharko dute. Argibide gehiago, hemen: [https://
egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza/nola-sartu](https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza/nola-sartu).

b) Aurrez aurre: Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean (Probintzia plaza 5), edo
Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen
16 artikuluan aurreikusitako gainerako moduetako edozeinetan.

Atal honetan jasotako moduan aurkezten diren eskabideak deialdi honetako II. eranskinoko
eredura egokitu beharko dira.

2. Onuradunek egunean izan beharko dituzte zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzare-
kikoak. Artxiboko eta Dokumentuak Kudeatzeko Zerbitzuak ofizioz egiaztatuko du pertsonak
atal honetan adierazitako baldintzak betetzen dituztela, baita eskatzailearen nortasun-datuak
ere. Egiaztapen horien aurka eginez gero, gertaera horien egiaztagiria aurkeztu beharko di-
tuzte, 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arautzen duen moduan (Datu Pertsonalak Babesteko
eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak aldatua, azken
xedapenetako hamabigarrenaren arabera).

3. Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, honako hauetan ezartzen dena aplikatuko da:
batetik, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren
5eko 3/2018 Lege Organikoa; bestetik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apiri-
laren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, pertsona fisikoak babestekoa dena datu pertsonalak
tratatzeari eta datuen zirkulazio libreaki dagokionez.

4. Eskaerak aurkezteko 20 egun balioduneko epea egongo da deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

5. Eskaerak forma egokian aurkeztu ezean, edo deialdi honetan eskatutako agiriren bat falta bada, errekerimendua egingo zaio interesdunari 10 egun balioduneko epean falta diren datuak eta agiriak aurkezteko. Adierazi den epean hala egiten ez badu, bere eskaerari uko egiten diola iritziko da, eta halaxe adieraziko da deialdiaren ebazpeneko foru aginduan.

7. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Dokumentazio hau aurkeztu beharko dute beka hauek lortu nahi dituzten interesdunek:

a) Bekaren eskatzailearen curriculuma, alegatutako prestakuntza eta esperientzia egiaztatzen duten agiriekin batera. Horri dagokionez, ez dira kontuan hartuko egiaztatu gabeko prestakuntza eta esperientzia.

Prestakuntza egiaztatzeko, dagozkion titulu akademikoen kopiak aurkeztuko dira. Esperientzia egiaztatzeko, lan bizitzaren txostenaz gain lan egin den erakundeetan emandako egiaztagiria aurkeztuko da, hasiera eta amaiera datak eta betetako eginkizunak adierazita.

b) Garatu beharreko ikerketa proiektuaren azalpen memoria, honako hauek zehaztuta: proiektuaren helburua eta justifikazioa, azterlanaren mugaketa, aurrekariak eta aurretiazko bibliografia, erabiliko den lan metodologia, proposatutako kronograma eta espero diren emaitzak, eta, hala badagokio, proiektua amaitzean entregatuko diren datu baseen, deskribapen fitxen edo informazio unitateen bolumena. Idatzizko eta ikusizko hizkuntzaren erabilera ez-sexista eginez idatzi beharko da proiektua.

c) Irakasle espezialista batek egindako txostena, proiektuaren interesa bermatzen duena.

8. artikulua. Prozedura izapidetzea eta balioespen irizpideak

1. Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Artxiboko eta Dokumentuak Kudeatzeko Zerbitzua izango da prozedura izapidetzeko organo eskuduna.

2. Balioespen batzorde bat eratuko da aurkeztutako eskaerak aztertu eta ebaluatzeko. Batzorde horren osieran emakumeen eta gizonen ordezkariak izango dira, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak 3.10 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta honako kide hauek izango ditu:

a) Lehendakaria: Kulturako zuzendaria edo hark eskuordetutako pertsona.

b) Kideak: Artxiboko eta Dokumentuak Kudeatzeko Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetutako pertsona eta Kultura Zuzendaritzari atxikitako bi teknikari.

c) Idazkaria: Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoko burua, hitzarekin baina botorik gabe, edo hark eskuordetutako pertsona.

3. Hauek izango dira eskaeren balioespen irizpideak:

a) Ikerketa proiektuaren balioespena, aurkeztutako memoriaren azterketatik abiatuta: gehienez ere 6 puntu, eta horretarako, alderdi hauek jorratuko dira.

Kalitate zientifikoa: gehienez 2 puntu, honako hauek bereziki kontuan hartuta:

- Aurretiazko esparru teorikoaren aurkezpen zuzena, bai eta aztergaiari buruz argitaratutako bibliografia garrantzitsua ere.

- Proposatutako helburuen, ikerketa metodologiaren eta espero diren emaitzen zehaztasuna.

- Aurkeztutako memoriaren koherentzia eta argitasuna, intelektuala zein formala.

Inpaktua: gehienez 1,5 puntu; horretarako, honako hauek hartuko dira kontuan bereziki:

- Proiektuaren erabilgarritasuna, behar adinako interes akademikoa duen ikerketa arlo garrantzitsu baten ezagutzari egiten dion ekarpena kontuan hartuta.
- Planteatutako ikerketaren eta erabiliko den lan metodologiaren berrikuntza.
- Azterlanetik lortu beharreko emaitzetatik abiatuta ezagutza transferitzeko gaitasuna eta emaitzen diziplinarteko berrerabilera potentziala.

Bideragarritasun teknikoak: gehienez 1,5 puntu, honako hauek bereziki kontuan hartuta:

- Azterlanaren xedearen identifikazio zorrotza, proiektuaren barruan aztertuko diren funtsak edo dokumentu bildumak zehaztuta.
- Lan plana behar bezala antolatzea, faseka mugatuta, kronograma espezifiko baten arabera.
- Espero diren emaitzen zehaztapen errealista, entregatu beharreko erregistro deskribatzaileen kopuruan kuantifikatuta ahal dela (dokumentu taldeenak edo dokumentuenak, erakundeenak, pertsonenak, etab.). Eta, nolahi ere, zenbatespen lausoak saihestuko dira.

Genero berdintasuna sustatzea: gehienez 1 puntu; horretarako, honako hauek hartuko dira kontuan bereziki:

- Proiektuak emakumeen memoria historikoa eraikitzeke egiten duen ekarpena.
- Proposatutako ikerketa eremuan desberdintasun adierazleak biltzea.
- Dokumentu iturriak ebaluatzea, berdintasun, aniztasun eta inklusio irizpideetan oinarrituta.

b) Eskatzailearen curriculum vitae: gehienez ere 4 puntu, eta horretarako, alderdi hauek jorratuko dira.

- Ikerketaren xede den gaiari buruzko prestakuntza espezializatua: 2 puntu, gehienez.
- Eskatzailearen ikerketa esperientzia: gehienez ere 2 puntu.

Eskatzaileek, beka jaso ahal izateko, 10 puntutik 6, gutxienez, lortu beharko dituzte.

Batzorde horrek, aurkeztutako eskaeren balioespina ikusita, beka hauek guztiz edo partzialki esleitu gabe uztea proposa dezake.

4. Eskaerak balio judizio baten mende dauden irizpideen arabera ebaluatzeke, balioespen batzordean aditu profesional independenteek parte hartu ahal izango dute. Aditu horiek erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, honako hauek adieraziz: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean aurreikusitako abstentzio kausetan ez daudela sartuta, konfidentzialtasuna bermatzen dutela, emandako dokumentazioa ez dutela erabiliko proiektuen balioespina ez den beste helburu baterako, deialdi honetan ezarritako irizpideen arabera, eta, ebazpen proposamena eman ondoren, espedienteetako dokumentazio guztia suntsitu egingo dutela, edo jatorrizkoak badira, prozeduraren izapidetze organoari itzuliko diotela. Izendapen horiek Kultura eta Kirol Saileko diputatuaren ebazpen baten bidez onetsiko dira, eta ebazpen hori ALHAOn argitaratuko da, interesdunek errekusatzeko duten eskubidea baliatu ahal izan dezaten, legez ezarritako egoera eta baldintzetan.

5. Balioespen batzordeak, deialdi honetan ezarritako irizpideekin bat etorritako eskaerak balioetsi ondoren, beka emateko edo ukatzeko proposamenekin batera, txosten bat egingo du, non jasoko baita onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten eskaera guztien zerrenda ordenatua, eskatzaileen puntuazioa adierazita lehentasun hurrenkeran, bateraezintasunagatik, absentiagatik edo uko egiteagatik egindako ordezkapenatarako.

Merezimenduetan berdinketa badago, lehentasuna izango dute azken hiru ekitaldietan Kultura eta Kirol Sailaren laguntzarik jaso ez duten pertsonen aurkeztutako eskaerak.

9. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena

1. Deialdi honetako beken emakida Kultura eta Kirol Saileko diputatuaren foru agindu baten bidez ebatziko da, ikusita zer dioen batzordearen proposamenak, eta eskatzaileei banan bana haren berri emango zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 42. eta 43. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Esleipen ebazpenean zer eskatzailei eman zaion dirulaguntza zehaztu behar da, eta berariaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi direla.

2. Beka eskaerak gehienez ere hiru hilabeteko epean ebatziko dira, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori igaro eta eskaerari buruzko esanbidezko ebazpenik eman ez bada, ulertuko da eskaerari ezezkoa eman zaiola, nahiz eta geroago ebazpena eman ahal izango den.

10. artikulua. Beka ordaintzea

1. Emandako bekaren zenbatekoari kasuan kasuko PFEZaren atxikipena egingo zaio, eta ordainketa bi alditan egingo da, honela:

a) 4.000,00 euro, beka ematen denean, justifikatu beharreko aurrerakin gisa.

b) 2.000,00 euro, Artxiboko eta Dokumentuak Kudeatzeko Zerbitzuaren buruak 11.d artikuluan adierazitako azken txostenari aldeko ebaluazio ziurtagiria eman eta gero.

2. Ebaluazio ziurtagiria aldekoa ez bada, ez da bigarren entrega egingo, eta lehenengo entregan jasotako zenbatekoa itzuli beharko da, eranskin honen 15. artikuluaaren arabera.

11. artikulua. Beken onuradunen betebeharrak

Beka hauek eskuratzeko eskaerak aurkezteak berekin dakar deialdi honetan ezartzen diren arauak espresuki eta baldintzarik gabe onartzen direla. Gainera, hauek dira onuradunen betebeharrak:

a) Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 13. artikuluan orokorki ezarritakoak.

b) Lehen aipatutako 1/2023 Legegintzako Dekretuan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoan jasotako printzipioak eta betebeharrak betetzea.

c) Berariaz jakinaraztea beka eta eranskin honetan xedatutakoa onartzen dela, hura emateko jakinarazpena jasotzen denetik hamabost egun balioduneko epean. Epe horretan beka onartzen ez bada, onuradunak uko egin diola ulertuko da, eta deialdiaren ebazpenarekin batera argitaratutako ordezkio eskaeren zerrendan hurrengo pertsona hautatuko da.

d) Egindako lanaren azken txostena aurkeztea, 2024ko abenduaren 5ean amaituko den epean. Txosten horretan lanaren emaitzak jasoko dira, proiektuaren memorian zehaztutako lan planaren arabera. Idatzizko eta ikusizko hizkuntzaren erabilera ez-sexista eginez idatzi beharko da ikerketa lana. Azken txosten hori Artxiboko eta Dokumentuak Kudeatzeko Zerbitzuaren buruak ebaluatuko du, eta proiektuaren azken ebaluazioaren ziurtagiria emango du.

e) Artxiboko eta Dokumentuak Kudeatzeko Zerbitzuaren egoitzara erregularitasunez joatea aztergai diren dokumentu iturriak kontsultatzeko, bat etorritik zerbitzu buruarekin.

f) Egindako jardueri buruzko datuak eta dokumentazioa ematea, Kultura eta Kirol Sailak hala eskatzen dienean. Era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontuen Epaitegiak edo beste erakunde eskudun batzuek eskatutako informazioa ere emango dute.

g) Konfidentzialtasun konpromisoa izatea, eskura jartzen zaion informazioari dagokionez, dela dokumentuen, txostenen eta antzekoen bidez, dela batzordeen edo lantaldeen bileretan jorratutakoaren ondorioz.

12. artikulua. Agiriak itzultzea

Eskatzaileek aukera izango dute aurkeztutako agiriak jasotzeko, salbu eta eskaera, baldin eta azkenean ez badira onuradunak, beken ebazpena jakinarazten denetik aurrera, hilabeteko epean. Ezarritako epea igaro ondoren, Kultura eta Kirol Sailean aurkeztutako eta jaso gabeko agiriak suntsitu egingo dira.

13. artikulua. Bateriaezintasunak

Deialdi honetako beka bateragarriak dira proiektu bererako jaso daitezkeen beste batzuekin, bai eta interesduna edozein erakunde, korporazio, pertsona publiko edo pertsona pribaturekin lotzen duen kontratu edo estatutu bidezko lotura dakarten soldatak eta beste ordainsari batzuk jasotzearekin ere. Dena den, laguntza hau eman aurretik, inguruabar horien berri eman eta berariazko baimena eskatu behar zaio Kultura Zuzendaritzari.

14. artikulua. Ikerketaren emaitzen jabetza eta argitalpena

Arabako Foru Aldundiak eskubidea izango du Creative Commons CC-BY-NC-SA lizentziapean bekatutako proiektuen ondoriozko lanak editatzeko, argitaratzeko edo erakusteko, osorik edo partez, egokitzat jotako komunikazio bideetatik, Internet barne. Beken onuradunek doan lagako dituzte horretarako beharrezkoak diren jabetza intelektualeko eskubideak, jabetza intelektualari buruz indarrean dagoen araudiaren arabera.

Edonola ere, Arabako Foru Aldundiak ez du inolako betebeharririk izango beken onuradunenganako, aipatutako lanak argitaratu edo erakusteagatik.

15. artikulua. Beka itzultzea

Esleitutako dirulaguntzak itzuli egin beharko dira Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak ezarritako kasuetan.

Onetsitako dirulaguntzaren kontura jasotako kopuruen itzulketa zuzenbide publikoko diru sarreratzat hartuko da eta haren kobrantza Ekonomia eta Aurrekontu Araubidearen abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak II. tituluko I. kapituluaren aurrekusten duenarekin bat etorritik egingo da.

16. artikulua. Interpretazioa


Deialdi hau interpretatzerakoan zalantzaren bat sortuz gero, Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Sailak ebaziko du.

17. artikulua. Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da. Halaber, www.araba.eus eta www.kulturaraba.eus web orrien bidez zabalduko da.

18. artikulua. Azken klausula

Eranskin honetan xedatuta ez dagoen guztian, honako hauei jarraituko zaie: urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzena; abenduaren 18ko 53/1992 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko Ekonomia eta Aurrekontu Araubidearena; Aurrekontua Gauzatzeko Foru Araua, indarrean dagoena; urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 3/2007 Lege Organikoa, Gizonen eta Emakumeen berdintasun Eragingarriakoa; 1/2023 Legegintzako Dekretua, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu batagina onartzen duena, eta aplikatzeko den gainerako araudia.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>“Arabako dokumentu iturriak” ikerketa beken eskaera (2. eranskina)</p> <p>2024</p> <p>Solicitud de becas de investigación “Fuentes Documentales de Alava” (Anexo 2)</p>
--	--

Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Cultura y Deporte

Eskaera zk. O N° Solicitud

Eskaera data O Fecha Solicitud

(Administrazioak betetzeko O A cumplimentar por la Administración)

ESKATZAILEA O SOLICITANTE

Identifikazio agiria O Documento identificativo			Identifikazio zk. O N° identificativo			Sexua O Sexo			
<input type="radio"/> NAN DNI	<input type="radio"/> AIZ NIE	<input type="radio"/> Besteren bat Otro				<input type="radio"/> Emakumea Mujer	<input type="radio"/> Gizona Hombre	<input type="radio"/> Ez binarioa No binario	
Izena O Nombre			Lehen abizena O Primer apellido			Bigarren abizena O Segundo apellido			
Helbidea (kalea) O Domicilio (calle)					Zk. O Núm.	Letra	Eskra. O Escal.	Solairua O Piso	Aldea O Mano
Herrialdea O Pais		Probintzia O Provincia		Udalerría O Municipio		Herria O Localidad		P. K. O C. P.	
Posta elektronikoa O Correo electrónico						Jaiotze data O Fecha nacimiento			
Telefona O Teléfono		Mugikorra O Móvil		Faxa O Fax					

JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA O DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN POSTAL

(Ez da bete behar eskatzailearen datuekin bat egiten badute O No rellenar si coincide con los datos de la persona solicitante)

Helbidea (kalea) O Domicilio (calle)					Zk. O Núm.	Letra	Eskra. O Escal.	Solairua O Piso	Aldea O Mano
Herrialdea O Pais		Probintzia O Provincia		Udalerría O Municipio		Herria O Localidad		P. K. O C. P.	


KULTURA ZUZENDARITZAK OFIZIOZ EGIAZTATZEA O COMPROBACIÓN DE OFICIO POR LA DIRECCIÓN DE CULTURA:

(Adierazi dagokiona O Marcar lo que corresponda)

Aplikatu beharreko araudiaren arabera, Kultura Zuzendaritzak honako datu hauek egiaztatuko ditu administrazio eskudunean: O De acuerdo con la normativa aplicable, la Dirección de Cultura comprobará en la administración competente los siguientes datos:

- Nortasun datuak kontsultatzea.** O Consulta de datos de identidad.
- Zerga-betebeharrak egunean dituela adierazten duen informazioa** O Información de estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela adierazten duen informazioa** O Información de estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones frente a la Seguridad Social.

Orria ■ Hoja 1/5

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Alava www.araba.eus</p>	<p>“Arabako dokumentu iturriak” ikerketa beken eskaera (2. eranskina)</p> <p>2024</p> <p>Solicitud de becas de investigación “Fuentes Documentales de Alava” (Anexo 2)</p>
Kultura eta Kirol Saila	Departamento de Cultura y Deporte


PERTSONA INTERESDUNAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA O DECLARACION RESPONSABLE DE LA PERSONA INTERESADA

Eskatzailearen betekizunak betetzeari buruzko adierazpena O Declaración del cumplimiento de requisitos del solicitante:

- Pertsona eskatzaileak betetzen ditu laguntza hauen onuradun izateko deialdian zerrendatutako baldintzak.** O La persona solicitante cumple los requisitos enumerados en la convocatoria para ser beneficiaria de estas ayudas.
- Ez du zehapen administratibo edo penalik dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion epai irmo baten bidez, ez eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ere, berariaz aipatuta generoagatiko edo sexu orientazioagatiko diskriminazioa egiteagatik gertatutakoak (dagokion zehapenean ezarritako aldian).** O No estar sancionada penal o administrativamente mediante sentencia firme que le imposibilite obtener subvenciones o ayudas públicas, ni estar incurso en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello, con mención expresa a las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de género u orientación sexual (durante el periodo impuesto en la correspondiente sanción).
- Ez du konkurtso deklarazioa eskatu, ez da kaudimengabetzat jo edozein prozeduratan, ez dago konkurtsoan deklaraturik, ez dago esku hartze judizialaren mende edo ez da desgaitu Konkurtso Legearen arabera, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaitutza aldia amaitu gabe.** O No ha solicitado la declaración de concurso, no ha sido declarada insolvente en cualquier procedimiento, no se halla declarada en concurso, no está sujeta a intervención judicial o no ha sido inhabilitada conforme a la Ley Concursal, sin que haya concluido el periodo de inhabilitación fijado en la sentencia de calificación del concurso.
- Ez du ekarri, errudun deklaraturik izateko kausagatik, Administrazioarekin egindako edozein kontratuen suntsiarazpen irmorik.** O No ha dado lugar, por causa de la que hubiese sido declarada culpable, a la resolución firme de cualquier contrato celebrado con la Administración.
- Pertsona fisikoa ez dago bateraezintasun kasuren batean, gai horiek arautzen dituen araudian ezarritakoaren arabera.** O No está incurso la persona física en alguno de los supuestos de incompatibilidades en los términos establecidos en la normativa que regule estas materias.
- Egunean ditu dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak.** O Se halla al corriente del pago de obligaciones por reintegro de subvenciones.
- Egiazkoak eta osoak dira eskabide honetako datu guztiak, bai eta aurkeztutako dokumentazio guztia ere.** O Son ciertos y completos todos los datos de la presente solicitud, así como toda la documentación presentada.

Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazioen bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkeztu erantzukizunpeko adierazpena, edo deklaraturik dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, edo komunikazioa, ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua)

La inexactitud, falsedad u omisión, de carácter esencial, de cualquier dato o información que se incorpore a una declaración responsable o a una comunicación, o la no presentación ante la Administración competente de la declaración responsable, la documentación que sea en su caso requerida para acreditar el cumplimiento de lo declarado, o la comunicación, determinará la imposibilidad de continuar con el ejercicio del derecho o actividad afectada desde el momento en que se tenga constancia de tales hechos, sin perjuicio de las responsabilidades penales, civiles o administrativas a que hubiera lugar (Artículo 69.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas)

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>“Arabako dokumentu iturriak” ikerketa beken eskaera (2. eranskina)</p> <p>2024</p> <p>Solicitud de becas de investigación “Fuentes Documentales de Alava” (Anexo 2)</p>
Kultura eta Kirol Saila	Departamento de Cultura y Deporte

DATUAK BABESTEARI BURUZKO OINARRIZKO ARGIBIDEAK O INFORMACIÓN BÁSICA SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Araudiak xedatutakoa betetzeko, jakinarazten dizugu emango dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiak tratatuko dituela eta “Artxiboko eta Dokumentuak Kudeatzeko Zerbitzuaren erabiltzailak” eta “Hirugarrenak eta interesatuak” tratamenduetan sartuko direla.

Bermatzen dugu datuak isilpean gordeko direla, eta ez zaizkiola jakinaraziko beste inori, legez ezarritako kasuz kanpo.

Aukeran izango duzu datuetan sartu, haiek zuzendu, ezereztu, haien aurka egin eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabiltzea, zeinak DBEOK aitortzen baititu, eta, horretarako, Egoitza Elektronikoaz baliatu ahalko zara www.araba.eus atarian edo Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren bulegora jo ahalko duzu (Probintzia plaza, 5, 01001 PK, Gasteiz – Araba).

Argibide gehiago:

<https://web.araba.eus/eu/tratamenduen-lege-ohar-hedatua>

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD), le informamos que los datos que usted nos facilita van a ser tratados por la Diputación Foral de Álava y se van a incorporar en los tratamientos de “Personas usuarias del Servicio de Archivo y Gestión Documental” y “Terceros e interesados”.

Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el RGPD a través de la Sede Electrónica en www.araba.eus, o dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria - Gasteiz (Álava).

Para más información:

<https://web.araba.eus/es/aviso-legal-ampliado>

(Tokia eta data O Lugar y fecha)

Eskatzailearen/ordezkararen sinadura O Firma de la persona solicitante/representante

ERANTSITAKO AGIRIAK O DOCUMENTACIÓN QUE SE ADJUNTA (Adierazi dagokiona O Marcar lo que corresponda)

- Curriculum Vitae eta alegatutako prestakuntzari eta esperientziari buruzko egiaztagiria. O Currículum Vitae y documentos acreditativos relativos a la formación y experiencia alegada.
- Ikerketa proiektua azaltzen duen memoria. O Memoria explicativa del proyecto de investigación.
- Irakasle espezialistaren txostena-abala. O Informe-aval de profesora o profesor especialista.

Orria ■ Hoja 4/5



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

Kultura eta Kirol Saila

“Arabako dokumentu iturriak” ikerketa beken eskaera (2. eranskina)

2024

Solicitud de becas de investigación “Fuentes Documentales de Alava” (Anexo 2)

Departamento de Cultura y Deporte

Arabako Foru Aldundiak ofizioz egiaztatzeari uko eginez gero. ○ En caso de oponerse a la comprobación de oficio por parte de la Diputación Foral de Álava:

- NANaren fotokopia (edo beste edozein identifikazio dokumentu baliokide)** ○ Fotocopia del DNI (o documento acreditativo de identidad equivalente).
- Zerga-betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria** ○ Certificado de estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria** ○ Certificado de estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones frente a la Seguridad Social.